

---

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

---

## Aztertutako kontzeptuak

Azterlanak kultura-sailek eta -arloek kudeatutako aurrekontuarekin lotutako begirada espezifikoa gainditu du, eta horrenbestez, sail horiek kudeatzen ez dituzten baina azterlan honetan kultura-gastutzat hartzen diren aurrekontu-partidak ere biltzen ditu. Informazio horretatik abiatuz, honako kontzeptu hauen arabera sailkatu da gastua:

- **Kultura-helmuga: esparruen deskribapena**

### **Ondarea eta arkeologia**

Arkitektura- eta arkeologia-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, birgaitzea, aztertzea, babestea eta hedatzea. Dokumentu-ondarea eta bibliografia-ondarea ez dira atal honen barnean hartu, ezta museoen esparruaren zati den ondarea ere.

### **Liburutegiak**

Liburutegietako funtsak mantentzea eta erostea, baita horietatik sustatzen diren jardueri dagokienez ere. Era berean, bibliografia-ondarea katalogatzeko, babesteko eta zaharberritzeko faseak ere atal honen barnean hartu dira, baita liburutegiaren esparru fisiko edo juridikoaren barruan gauzatzen ez diren kasuetan ere.

### **Artxiboak**

Dokumentu-artxiboak eta -ondarea sortzea, mantentzea, katalogatzea, hedatzea, eta horiekin lotutako jarduerak egitea eta funtsak erostea.

### **Museoak**

Museoak sortzea, mantentzea eta hedatzea eta horiekin lotutako funtsak erostea.

### **Antzerkia eta dantza**

Antzerki- eta dantza-ikuskizunak; arte eszenikoen esparru profesionaleko sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea. Era berean, zirkua eta beste hainbat jarduera eszeniko eta parantzerki-jarduera ere atal honen barnean hartzen dira, baina opera, berriz, ez.

### **Musika**

Zuzeneko musika-emanaldiak, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sorkuntzan, ekoizpenean nahiz hedapenean laguntzea). Arautu gabeko musika-eskolen jarduera ere atal honen barnean jaso da.

### **Ikusizko Arteak**

Pintura- eta eskultura-erakusketak, eta baita beste hainbat ikusizko-artenak ere; sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea.

### **Zinema eta ikus-entzunezkoak**

Lan zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa: ikus-entzunezkoak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.

### **Literatura eta edizioa**

Argitaratze- eta literatura-sustapena; sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea.

### **Kultura ekintza**

Espezializatu gabeko jaialdiak, ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik bultzatutako programak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak —zentro zibikoak, kultura-etxeak, eta abar— amateurismoa eta kultura-partaidetza hartzen dira atal honen barnean.

### **Bertsolaritza**

Egitura eta zerbitzu egonkorak mantentzeko eta babesteko gastua hartzen da atal honen barnean (bertso-eskolak, elkarteak, eta abar babestea).

### **Jaiak eta herri-kultura**

Udalerrietako herri-jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, eta baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak eta jarduerak ere. Jaien barnean hartutako gastuen multzoa kultura-gastutzat hartu da.

### **Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak**

Ezein kultura-azpisektore zehatzetan egotzi ezin diren gastu orokorrak —kultura-arloaren funtzionamendukoak— hartzen dira atal honen barnean (esate baterako, kultura-teknikari baten pertsonal gastuak). Kultura-gastu espezifikoak egozteko kalkulua egin da zerbitzu horiek kultura-alorretik kanpoko beste zenbait esparru eta sektore —esaterako, kirol-, gazteria-, edota euskara-sektoreak— ere kudeatu dituzten kasuan...

### **Komunikabideak**

Komunikabide publikoei, pribatuei eta sozialei laguntzea eta horiek finantzatzea hartzen da atal honen barnean. Kulturaren azpisektore gehigarritzat jo da, eta honenbestez, ez da hartu guztizko kultura-gastuari buruzko datuen barnean.

#### ▪ **Gastuaren izaera ekonomikoa: aztertutako partidak**

Azterketa honetarako, aurrekontu publikoetako gastuaren sailkapen ekonomikoa erabili da, honako epigrafe hauek biltzen dituenak:

##### **Gastu arruntak:**

- I. kapitulua. Langile gastuak: soldatak eta ordainsariak biltzen ditu, nagusiak ordaindu beharreko kuotez, prestazioez eta gastu sozialez gain.
- II. kapitulua. Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak: zenbait gastu arrunt biltzen dituzte, hala nola erosketen kudeaketa, zerbitzuen azpikontratazioa, ekipoak konpontzeko gastuak, eta abar.
- III. kapitulua. Finantza-gastuak: jaso diren edozein motatako zorren, gordailuen eta finantzen interesen ondoriozko gastuak.
- IV. kapitulua. Transferentzia arruntak: onuradunen kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzeko bestelako sektore publiko nahiz pribatuetara bideratutako kredituak biltzen dituzte.

##### **Kapital-gastuak:**

- VI. kapitulua. Inbertsio errealak: kultura-azpiegitura berrietarako, arte-lanetarako, ekipamendu-berritzeetarako, eta abarretarako inbertsio iraunkorrak egiteko behar diren zuzkidurak.
- VII. kapitulua. Kapital-transferentziak: inbertsioak finantzatzeko zuzeneko kontraprestaziorik gabeko ordainketak.

##### **Finantza-aktiboak eta -pasiboak:**

- VIII. kapitulua. Finantza-aktiboak: finantza-aktiboak erosteko eta gordailuak eta fidantzak finkatzeko kredituak.
- IX. kapitulua. Finantza-pasiboak: zorrak amortizatzeko eta hirugarrenek bateratutako gordailuak eta fidantzak itzultzeko kredituak.